



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2020ko urtarrilaren 31

14. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, erlijioaren irakaskuntzari eta haren ordezkoei buruzkoa. Proposamena bazter utzi da (3. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Interpelazioa, Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdea dela-eta garatuko den politika orokorrari buruzkoa. Alberto Bonilla Zafra jaunak aurkeztu du (4. or.).

—Interpelazioa, gardentasunaren eta gobernu irekiaren arloko politika orokorrari buruzkoa. José Suárez Benito jaunak aurkeztu du (4. or.).

—Interpelazioa, trantsizio energetikoaren arloko politika orokorrari buruzkoa. María Virginia Magdaleno Alegria andreak aurkeztu du (5. or.).

—Interpelazioa, Turismoaren arloko politika orokorrari buruzkoa. Ainhoa Unzu Garate andreak aurkeztu du (5. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ukitutako toki entitateetako udalekin lankidetzan jardun dadin, behin betikoa izan dadin ADIFek eta RENFEk Castejongo, Tafallako eta Altsasuko tren-geltokietako txarteldegiak berriro irekitzeko harturiko behin-behineko erabakia. Pablo Azcona Molinet jaunak aurkeztu du (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Estatuko Gobernua premiatzen da egin beharreko zuzemen guztiak egin ditzan Frantziako Gobernuaren aitzinean, Francisco Franco diktadoreari Ohorezko Legioaren saria erretiradakion. Mikel Asiain Torres jaunak aurkeztu du (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Estatuko Gobernua eta Nafarroako Gobernua premiatzen dira zenbait neurri har ditzaten “lindano” izenarekin ezagutzen den pestizida dela-eta. Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztu du (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da informazio eta sentsibilizazio kanpaina bat egin dezan, etorkinak D nahiz A eruedetan sar daitezzen. Geroa Bai talde parlamentarioak aurkeztu du (11. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, iruzur fiskalaren aurkako borrokari buruzkoa. Mikel Buil García jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, 2030eko Agenda garatzeko konpromisoa bultzatze eta sendotze aldera aurreikusitako jarduketei buruzkoa. Nuria Medina Santos andreak egin du (14. or.).
- Galdera, Espainiako Gobernuak larrialdi klimatikoa deklaratu izanari buruzkoa. María Virginia Magdaleno Alegría andreak egin du (14. or.).
- Galdera, Nafarroako Foru Auzitegi Ekonomiko-Administratiboaren esparruan jakinarazpen elektronikoen zerbitzu-ematea arautzen duen Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren abenduaren 31ko 99/2019 Foru Aginduari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (15. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuo Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusiari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (16. or.).
- Galdera, polizia-gehiegikeriei buruz Nafarroak eta EAEk onetsitako legeen aurka PPK, Cs-ek eta Voxek aurkeztutako errekursoak Konstituzio Auzitegiak izapidetzeko onartu izanari buruzkoa. Galdera erretiratzeari (16. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Arauek, Nafarroako Parlamentuak Memoria Historikoaren arloko Batzorde Teknikorako bere ordezkari gisa hautatu beharreko bi kideak aukeratzekoak (17. or.).
- Talde parlamentarioek 2020an jasoko dituzten dirulaguntzak (18. or.).
- Foru parlamentariak bilkuretara bertaratzearen truke 2020an jasoko dituzten ordainsariak (18. or.).
- Foru parlamentarien bidaia ofizialengatiko eta Legebiltzarreko langileek lanaren kariatz egiten dituztenen-gatiko ordainsarien araubidea 2020ko urterako (19. or.).
- Nafarroako Parlamentuko lehendakariak 2020ko urtarrilaren 1etik aitzina jasoko dituen ordainsariak (19. or.).
- Foru parlamentariak 2020ko urtarrilaren 1etik aitzina jasoko dituzten ordainsariak (20. or.).
- Nafarroako Parlamentuko behin-behineko langileek 2020ko urtarrilaren 1etik aitzina jasoko dituzten ordainsari gordinak (20. or.).
- Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langile funtzionarioek eta kontratadunek beren mailaren arabera 2020ko urtarrilaren 1etik aitzina jasoko dituzten ordainsariak (21. or.).
- 2019. urtean zehar foru parlamentariak jasotako ordainsariak (21. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, erlijioaren irakaskuntzari eta haren ordezkoei buruzkoa.

PROPOSAMENA BAZTER UTZI DA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 27an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Hezkuntza Batzordeak, 2020ko urtarrilaren 15ean egindako bileran, irizpen negatiboa eman du erlijioaren irakaskuntzari eta haren ordezkoei buruzko Foru Lege proposamenaren inguruan. Hori ikusita, Legebiltzarreko Erregelamenduko 138.3 artikuluan ezarritakoa betez eta batzordeen irizpen negatiboei buruzko 2013ko abenduaren

30eko Lehendakariaren erabakiarekin bat, hona ERABAKIA:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela aipatu foru lege proposamena baztertu izanari dagokionez (10-19/PRO-00014).

2. Agintzea erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

E saila:

INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Interpelazioa, Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdea dela-eta garatuko den politika orokorrari buruzkoa.

ALBERTO BONILLA ZAFRA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Bonilla Zafra jaunak aurkezturiko interpelazioa, Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdea dela-eta garatuko den politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Alberto Bonilla Zafra jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Nafarroako Gobernuarentzako interpelazioa, Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdea dela-eta garatuko den politika orokorrari buruzkoa.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 17an

Foru parlamentaria: Alberto Bonilla Zafra

Interpelazioa, gardentasunaren eta gobernu irekiaren arloko politika orokorrari buruzkoa.

JOSÉ SUÁREZ BENITO JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Suárez Benito jaunak aurkezturiko interpelazioa, gardentasunaren eta gobernu irekiaren arloko politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen José Suárez Benito jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten dio Nafarroako Gobernuari, gardentasunaren eta gobernu irekiaren arloko politika orokorrari buruzkoa.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 20an

Foru parlamentaria: José Suárez Benito

Interpelazioa, trantsizio energetikoaren arloko politika orokorrari buruzkoa.

MARÍA VIRGINIA MAGDALENO ALEGRÍA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Virginia Magdaleno Alegría andreak aurkezturiko interpelazioa, trantsizio energetikoaren arloko politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Virginia Magdaleno Alegría andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako interpelazio hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Nafarroako Gobernuarentzako interpelazioa, trantsizio energetikoaren arlorako daukan politika orokorrari buruzkoa.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 21ean

Foru parlamentaria: Virginia Magdaleno Alegría

Interpelazioa, Turismoaren arloko politika orokorrari buruzkoa.

AINHOA UNZU GARATE ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Garate andreak aurkezturiko interpelazioa, Turismoaren arloko politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ainhoa Unzu Garate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, turismoaren arloko politika orokorrari buruzko honako interpelazio hau aurkezten dio Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 22an

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Garate

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ukitutako toki entitateetako udalekin lankidetzan jardun dadin, behin betikoa izan dadin ADIFek eta RENFEk Castejongo, Tafallako eta Altsasuko tren-geltokietako txarteldegiak berriro irekitzeko harturiko behin-behineko erabakia.

PABLO AZCONA MOLINET JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pablo Azcona Molinet jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita ukitutako toki entitateetako udalekin lankidetzan jardun dadin, behin betikoa izan dadin ADIFek eta RENFEk Castejongo, Tafallako eta Altsasuko tren-geltokietako txarteldegiak berriro irekitzeko harturiko behin-behineko erabakia.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko parlamentari Pablo Azcona Molinet jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Gauza jakina da joan den urtarrilaren 1ean itxi zirela Castejongo, Tafallako eta Altsasuko tren-

geltokietako txarteldegiak. ADIFen eta RENFEren aldebakarreko erabaki hori gutun bidez eta egun zinez desegokietan jakinarazi zitzaizen ukitutako herrietako udalei, halako moduan non toki entitate horiek ez zuten modurik izan erantzun bat emateko ez eta negoziatzeko ere.

Geroa Bairen ustez, erabaki hori kaltegarria zen bai trenaren zerbitzu publikoa kalitatez emateko bai kasuko eskualdeko enplegurako, eta eragin negatiboa izan dezake landa-eremu horien despopulazioari begira.

Hamabost egun geroago, Sustapen Ministerioak jakinarazi zuen atzera egiten zuela erabaki horretan, halako moduan non txarteldegiak behin-behinekoz irekiko baitira martxoaren 31ra bitarte, RENFEk bere antolamenduari buruz eta zerbitzua bere gain behin betikoz hartuko ote duen erabaki bitarte.

Erabakia behin-behinekoa dela ikusita, Geroa Bai talde parlamentarioak honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ukitutako toki entitateetako udalekin lankidetzan jardun dadin, behin betikoa izan dadin ADIFek eta RENFEk Castejongo, Tafallako eta Altsasuko tren-geltokietako txarteldegiak berriro irekitzeko harturiko behin-behineko erabakia.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 16an

Foru parlamentaria: Pablo Azcona Molinet

Mozioa. Horren bidez, Estatuko Gobernuak premiatzen da egin beharreko zuzemen guztiak egin ditzan Frantziako Gobernuaren aitzinean, Francisco Franco diktadoreari Ohorezko Legioaren saria erretira dakion.

MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Estatuko Gobernuak premiatzen baita egin beharreko zuzemen guztiak egin ditzan Frantziako Gobernuaren aitzinean, Francisco Franco diktadoreari Ohorezko Legioaren saria erretira dakion.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko parlamentari Mikel Asiain Torres jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Jean Ocañak –erbesteratu errepublikanoen semea bera– urteak daramatza Frantziako Gobernuari eta Ohorezko Legioaren kudeatzaileei eskatzen Francisco Franco diktadoreari sari hori ken diezaioten, birritan emana eta berretsia: 1928an ofizial gisa, eta 1930ean komandante gisa.

Orain arte alferrik izan dira egindako saiakera horiek guztiak; izan ere, bai Ohorezko Legioaren Kantzilertza Handiak bai Parisko Administrazio

Auzitegiak errefusatu egin dituzte egin diren eskabide guztiak; horretarako, zenbait arrazoi eman dituzte, baina batez ere bat: erakundearen erregelamenduen aurkakoa da titulu bat heriotzaren ostean kentzea.

1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala emateko azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legearen hitzaurrean honako hau esaten da: “Nazio Batuen Erakundearen 47/133 Ebazpenak (1992ko abenduaren 18ko Batzar Nagusiak hartutakoa) Pertsona Guztiak Desagerpen Behartuen aurka Babesteari buruzko Adierazpena onetsi zuen, eta adierazi zuen desagerpen behartuek zuzenbidearen nagusitasuna, giza eskubideak eta oinarriko askatasunak errespetatzen dituen gizarte ororen balio sakonenak ukitzen dituztela, eta haien praktika sistematikoa gizateriaren aurkako krimena dela”.

Horregatik baino ez bada ere –desagerpen behartuak gizateriaren aurkako krimena izatea–, nahiz eta beste arrazoi asko ere eman litezkeen, Frantziako estatuak Ohorezko Legioaren saria kendu beharko lioke diktadoreari.

Horregatik guztiagatik, Geroa Bai talde parlamentarioak honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernuak premiatzen du egin beharreko zuzemen guztiak egin ditzan Frantziako Gobernuaren aitzinean, Francisco Franco diktadoreari Ohorezko Legioaren saria erretira dakion.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 18an

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

Mozioa. Horren bidez, Estatuko Gobernua eta Nafarroako Gobernua premiatzen dira zenbait neurri har ditzaten “lindano” izenarekin ezagutzen den pestizida dela-eta.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Estatuko Gobernua eta Nafarroako Gobernua premiatzen baitira zenbait neurri har ditzaten “lindano” izenarekin ezagutzen den pestizida dela-eta.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko ele-dun Adolfo Araiz Flamarique jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 196. artikuluan ezar-tzen denaren babesean, honako mozio hau aurkezten du:

HCH-Lindanoa egotea, ingurumenerako arris-kua iez ezik, osasun publikorako arriskua ere bada, eta gizarteak zein erakundeek kontuan hartu behar dute.

HCH-lindanoaren deskribapena:

Lindanoa konposatu kimiko bat da, pestizida gisa erabili izan dena. HCH-Hexakloroziklohexanoaren isomero kimiko bat da; substantzia organokloratu bat da, lehenetsitako substantzia arriskutsu gisa sailkatua eta Europar Batasunean 2008az geroztik debekatua. Honako ezaugarri hauek ditu:

– Iraunkortasun handia: biodegradazio geldo eta zaila.

– Toxikotasun handia: kalteak egiten dizkie ingurune naturalari eta animalia-espezieei.

– Mugikortasun handia: lurrunkortasun erraza.

– Biometatze eta biohanditze handia: biodegradazio zailaren eta kontzentrazio errazaren eraginez, elika-katean metatzen da.

Giro-tenperaturan, bere egoera fisikoa eta itxura kristal-hauts zuri batena da.

Batik bat erabili izan da nekazaritzan, pestizida eta intsektizida modura; abeltzaintzan, parasitoen kontrako produktu modura; eta erabilera farmakologikoetan, gizakiengan (hazteriarren eta zorrien aurka). Produktu komertziala ekoizteko prozesuak hondakin ugari sortzen zuen: produktuaren kilogramo bakoitzeko 9 hondakin-kilogramo sortzen ziren, kutsagarritasun-ezaugarri berekoak. 2015etik aitzina, OME-Osasunaren Mundu Erakundeak “gizakientzat kantzerigeno” gisa sailkatzen du, 1. multzoaren barruan: toxikotasun egiaztatuko konposatu kimikoak. “Disruptore endokrino” gisa ere eragiten du: organismo bizi bati arrotz zaizkion substantziak, haren oreka hormonalaldatzeko gai direnak eta ugalketa-sistema nahiz sistema neurologikoan eragin dezaketenak. Gai-nesposizioagatiko efektu akutuak kaltegarriak dira arnasa-sistemarentzat, sistema kardiobaskularrarentzat eta sistema hepatikoarentzat, eta are heriotza eragin dezakete.

Kimikoki, apolarra eta oso egonkorra da, baina asko berotuz gero deskonposatu egiten da eta ke toxikoak darizkio (karbono monoxidoa, hidrogeno kloruroa eta fosgenoa). Ezin dugu ahantzi elementu hau ez dela ingurumenean berez egoten, eta I. mundu gerran erabilitako agente kimikoen artean fosgenoa izan zela heriotza-kopuru handiena eragin zuena. Horrenbestez, zabortegei kontrolatugabeak oso arriskutsuak dira sutea izanez gero. Batez ere kontuan harturik dosi handiak atzeman direla arboletako zurean Sabiñanigon (Aragoi) eta Jatan (Bizkaia).

Lindanoaren fabrikazioa Espainiako estatuan eta hondakinen sakabanaketa:

Espainiako Estatuan XX. mendeko 40ko hamarkadan hasi eta 90eko hamarkada bitartean fabrikatu zen HCH-lindanoa, lurralde osoan barreiatutako zenbait enpresatan.

Zehazki, honako enpresa hauek fabrikatu edo erabili zuten lindanoa beren produkzio-prozesuetan:

– Bilbao Chemical SA (1947-1987), lehenago Insectidas Cónдор SA eta Standard Química deitua. Barakaldo (Bizkaia).

– Nexana SA, gero Celamerck multinazionalak erosi zuena (1952-1982). Erandio (Bizkaia).

– Insectidas Cónдор SA (1966-1985). Zornotza (Bizkaia).

– Industrias Químicas del Noroeste SA (1975-1994). Sabiñánigo (Huesca).

– Zeltia (1947-1964). O Porriño (Pontevedra).

– Cruz Verde (1881-1965). Bartzelona.

– Fabricación Nacional de Colorantes y Explosivos (1994- 1965). Bartzelona.

– Productos Cruz Verde SA: (1945-1992) bi kokalekutan:

– Productos Activos (Sant Adrià del Besós, zer helbidetan ez dakigu)

– Formulados (Alfontso XIII.a etorbidea, 472; Badalona)

– Electroquímica de Flix, Flix (Tarragona).

– Destilerías Químicas DIM, (1940-1982). Madril.

Arestian adierazi dugun legez, fabrikazio-prozesu horrek hondakin ugari sortzen zuen. Hondakin horiek, konposizio kimiko eta kutsagarritasun bertsukoak, kontrolik gabe bota ziren urte asko eta askoan, dela zabortegietara, bestelako hondakinekin nahasita, dela ingurumenera. Normalean, fabriketatik gertu samarreko area edo parajeetan.

80ko urteetatik aitzina, ukitutako herrien edo tokiko agintarien presioak presio, kasu batzuetan HCH-lindanoaren hondakinak urrunagoko tokietara eta, normalki, biztanle gutxikoetara eramaten hasi ziren.

Espainiako hainbat tokitan utzi ziren, askotan ez dela jakiten non isuri ziren, utzitako hondakinen kantitatea eta zer baldintzatan egin zen.

Ondorioz, debekutik urteak joan badira ere, konfederazio hidrografikoek lindanoaren presentzia detektatzen jarraitzen dute ia Espainiako estatu osoko ur-ibilgu ugarian; honako bederatziko arro hauetan, hain zuzen ere: Tajo, Ebro, Duero, Júcar, Segura, Miño-Sil, Guadiana, Guadalquivir eta Kantauri Ekialdea.

Espainiako Estatuan isurtokiak atzeman dira hamabi autonomia erkidegotan: Madril, Gaztela eta Leon, Gaztela-Mantxa, Galizia, Andaluzia, Extremadura, Valentzia, Murtzia, Aragoi, Katalunia, Nafarroa eta EAE.

Nafarroan ofizialki ez zen inolako hondakinegirik gaitu hondakin horretarako, baina gauza jakina da isurketa puntual batzuk egin zirela -Ekonomia Zirkularraren eta Klima Aldaketaren Zerbitzuaren Hondakinen Atalaren arabera-, agian lurren jabeak zama hori zeraman garraiolariari baimena emanda, hartara garraiolariak jatorritik urrunago zegoen beste toki batera joateko kostuak gutxitzeko. Toki horiek Vianan eta Iguzkitzan daude.

Arazo hau toki edo autonomia arlotik harago doa.

Konfederazio hidrografikoen kontrolen datuek aditzera ematen dute Ekologistak Martxan elkarteak urteetan zehar ohartarazi duen gauza bat; alegia, Espainiako Estatuan lindano-hondakinen kudeaketa iluna eta zabarra izan zela. Espainiako hainbat tokitan lindano-hondakinak legez kanpo eta kontrolik gabe utzi ziren. Kokapen ezezaguneko hondakin horiek orain uretara iragazten ari omen dira eta, ondorioz, lurzoruen kutsadura horrek askotan eragina izanen luke azaleko nahiz lurrazpiko uretan, kutsadura oso erraz iritsiko litzaikeelako, lehen aipatu bezala HCH-Lindanoa mugikortasun handikoa izateagatik.

Lege-araubidea:

HCH-lindanoaren arriskuak ekarri du herrialde askok lindanoaren fabrikazioa eta erabilera debekatzea XX. mendeko 80ko hamarkadatik aitzina.

Nazioartean, Stockholmeko 2004ko Hitzarmena nabarmendu behar da, 181 herrialdek berretsia. Kutsatzaile organiko iraunkorren ezabaketa du xede, eta hor sartzan da HCHa, 2010ean ezabatu beharreko kutsatzaile gisa.

Europar legeria murriztailea dago 1979tik: 79/117/EEE zuzentaraua, 84/491/EEE zuzentaraua... besteak beste. 850/2004 (EE) Erregelamenduak lindanoaren erabilera guztiak debekatu zituen, 2007aren amaiera aldean amaitzen ziren salbuespenak salbuespen.

Uretako presentziaren gaineko kontrolari dago-kionez, ur-politiken arloko substantzia lehenetsiei buruzko 2013/39/EB Zuzentarauak substantzia lehenetsi arriskutsuen artean sartzan du HCHa, eta azaleko uretako presentziarako mugak ezartzen ditu: 20 ng/l-ko batez besteko kontzentrazioa urtean, eta gehienez ere 40 ng/l-ko kontzentrazio onargarria. Plan hidrologikoetan aintzat hartu behar dira muga horiek, ur-masen egoera kimikoa baloratzeko.

Araudi horren transposizioa Espainiako orde-namendu juridikora 817/2015 Errege Dekretuaren bidez egin zen, zeinak ezartzen baititu azaleko

uren egoeraren jarraipena eta ebaluazioa egiteko irizpideak eta ingurumenaren kalitateari buruzko arauak, halako moduan non kalifikazio berbera (substantzia lehenetsi arriskutsua) eta kontzentrazio onargarriaren muga berberak ezarri baitziren.

Harrigarria eta kontraesanekoa bada ere, Giza-kien kontsumorako uraren kalitateari buruzko 1998/83/EE Zuzentarauak ez du HCHa berariaz jasotzen substantzia lehenetsi arriskutsu gisa, pestizida gisa hartzen baitu soilik, halako moduan non substantzia horiei buruzko araudi orokorrari atxikitzen baitzaio, muga askoz ere handiagoekin: 100 ng/l pestizida indibidualentzat eta 500 ng/l pestiziden osotasunarentzat. Araudi hori da, hain zuzen ere, Gizakien kontsumorako uraren kalitate-rako osasun-irizpideak ezartzen dituen 140/2003 Errege Dekretuan gaur egun jasotzen eta aplikatzen dena.

Uraren 2000/60/EE Esparru Zuzentarauak ere uraren kalitateari buruzko betekizunak eta substantzia lehenetsi kutsatzaileen arloko ekintza-planei buruzkoak jasotzen ditu Arroko Plan Hidrologikoetan. Kontrol eta ekintza betekizun horiek, baina, askotan ez dira betetzen ari.

Bestalde, kutsadura-egoera horietako askotan aplikagarria izanen litzateke lurzoru kutsatuei eta hondakinen kudeaketari buruzko legeria. Bereziki, Hondakinei buruzko 2008/98/EE Esparru Zuzentarra eta Espainiako ordenamendu juridikoan horrek izan duen garapena: Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko 22/2011 Legea (5/2013 Legearen bidez hein batean aldatua), Lurzoruaren kutsadura prebenitzeko eta zuzentzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legea, Lurzorua kutsa dezaketen jardueren zerrenda eta lurzoruak kutsatu gisa deklaratzeko irizpideak eta estandarrak ezartzen dituen urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretua, Lurzorua kutsatzen ahal duten jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan dituzten lurzoruen inbentarioari buruzko irailaren 30eko 165/2008 Dekretua eta Hondakinak hondakindegietan uztearen eta betelanak egitearen bitartezko hondakin-ezabatzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretua, besteak beste. Orobat izanen litzateke aplikatzekoa, legokiekeen neurrian, abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretua, Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuei buruzko Legearen testu bategina onesten duena.

Horretan guztian oinarrituta, ondoko erabaki proposamena aurkezten da, eztabaidatu eta bozkatzeko:

Lehena. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du substantzia lehenetsien

eta lehenetsi arriskutsuen zerrenda sar dezan Gizakien kontsumorako uraren kalitate-rako irizpideak ezartzen dituen 140/2003 Errege Dekretuan, bai eta Azaleko uren egoeraren jarraipena eta ebaluazioa egiteko irizpideak eta ingurumenaren kalitateari buruzko arauak ezartzen dituen 817/2015 Errege Dekretuan ezarritako kontrol-parametroak eta mugak ere.

Bigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du substantzia lehenetsiak eta lehenetsi arriskutsuak aintzat har daitezkeen balizko aldaketak egitean urriaren 31ko 231/1986 Foru Dekretuan, zeinaren bidez zentrosare bat ezartzen baita kontsumo publikoko edateko uraren osasun-zaintzarako.

Hirugarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du giza kontsumorako ez-gai deklaratu daitezkeen, giza osasunerako arriskua aztertu ondoren, substantzia lehenetsietarako eta beste kutsatzaile batzuetarako ingurumen-kalitateko arauak urratzen dituzten hornidura-eremuetatik datozen urak.

Laugarrena. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du 2016tik 2021era bitarte exekutatu beharreko plan hidrologikoen bigarren fasearen okerrak zuzen dituzten eta berriazko neurri zuzentzaileak aplikatu daitezkeen substantzia lehenetsiak ezabatze aldera azaleko nahiz lurrazpiko uretatik, ingurumenari buruzko legeria indardunarekin bat.

Bosgarrena. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du gainontzeko erakunde eskudunen buru jar dadin, bere eskumenak baliatuz, autonomia, estatu eta nazioarteko mailan koordinatutako ekintza batean, deskontaminazioari buruzko ezagutzak partekatzeko, eta ekintza instituzional eta sozialeko mahai bat era dadin, zeinetan parte hartuko baitute ukitutako agintari publikoek (estatukoek, foru autonomiakoek eta udaletakoek), gizarte zibileko erakundeek, ekologistek eta esparru tekniko eta zientifikoko bestelako erakundeek eta ordezkariak, deskontaminazioari buruzko ezagutzak trukatzeko, Europako, estatuko eta autonomi erkidegoko beharrezko funtsak mobilizatzeko, eta ikerkuntza nahiz erremediatze lanak garatzeko xedez ekintza integraleko plan bat taxutzeko.

Seigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ekintza instituzional eta sozialeko mahai bat sustatu dezan foru komunitatearen mailan, zeinean parte hartuko baitute lindanoa egon den aurkintza batek ukitutako toki administrazio guztiek, gizarte zibileko erakundeek eta esparru tekniko eta zientifikoaren ordezkariak,

helburua izanik estatu eta Europa mailan koordinatutako jardun instituzional bat garatzea, ezagutzak trukatzeko aldera eta beharrezkoak diren Europako eta estatuko funts ekonomikoak mobilizatze aldera, ikerkuntza nahiz erremediatze lanak gara-

tzeko xedez ekintza integraleko plan bat taxutzeari begira.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 21ean

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da informazio eta sentsibilizazio kanpaina bat egin dezan, etorkinak D nahiz A ereduetan sar daitezzen.

GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Geroa Bai talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Hezkuntza Departamentua premiatzen baita informazio eta sentsibilizazio kanpaina bat egin dezan, etorkinak D nahiz A ereduetan sar daitezzen.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari María Roncesvalles Solana Arana andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Legebiltzarreko Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Egungo Nafarroako Gobernuaren ibilbide-orria da PSNk, Geroa Baik, Podemos-Ahal Duguk eta IEk berdintasunezko legegintzaldi berritzaile eta aurrerakoi baterako sinatutako programa-akordioa. Bada, 2019-2023 Legegintzaldirako Ekinbide Politikoaren Hamar Ardatzen artean, honako hau ezartzen da 10. puntuan: “Nafarroako errealitate historiko, kultural eta soziala gorde eta babestea, horren parte diren berezko hizkuntzak barne”.

Dokumentu berean, 3.1 apartatuan –Ezagutza, Hezkuntza eta Aukera-berdintasuna–, honako

konpromiso hau jasotzen da 30. puntuan: “Baliabide urriko pertsona migratzaileen eta haien familien integrazioa erraztu. Metodo pedagogiko egokiak garatu eta eskualde guztietan programa espezifikoak eskaini”. Azkenik, 35. puntuan adierazten da erabaki dela “beharrezkoa eta nahitaezkoa den euskararen hezkuntza-planifikazio publikoari laguntzea, borondatezkotasunetik eta bizikidetzatik abiatuta. Euskara ikasteko hezkuntza-eskaintza gradualki eta progresiboki garatzea, legeak aurreikusitakoarekin bat”.

Geroa Bairen ustez, hiru auzi horiek, hiru konpromiso horiek, bide argi bat erakusten dute, eta hori mamtzen da gure hezkuntza-sistemaren moldaketa batean, halakoa non gure Komunitatean integratzeko moduko harrerarik eta abegirik proposena egingen baitzaie ikasle etorkinei, haiei gure errealitate historikoa eta kulturala ezagutaraziz, bai eta gure hizkuntza berekiak haiei erakutsiz ere, nafar guztiak partekatzen dugun ondare-aberastasuna direnez. Gure hizkuntza berekia, euskara, gure herri eta hirietan gizarteratzeko eta elkabizitzarako elementu aglutinatzailea eta osagai perfektua den uste osoa dugulako aldeztu dugu euskararen sustapena, baita hezkuntzan ere, baita immigrazioari berriaz loturik ere.

Geroa Bain argi dugu D ereduak ikasle etorkinak bertan matrikulatzea berez dauzkan zailtasunen aurka borrokatu beharra dagoela: behin betikoz baztertu behar ditugu hizkuntza behar bezala ikasteko zailtasunei buruzko ideia okerrak; etorkinen artean ezagutarazi behar dugu hizkuntza, zeren eta, kasu asko eta askotan, jakin ere ez baitakite existitzen denik; sarritan, gehiegitan, ezin izan da bermatu errealitateari doitutako informazioa ematen denik, eredu horren alde onak, gizarteratzeari begira zalantzarik gabe daukan ontasuna; aitzitik, inoiz-edo tamalez ikusi dugu hautu horren aurkako aholkuak eman direla,

aurreiritziz betetako argudioekin eta batzuen ustez Nafarroan eredu horrek estigmatizatu egiten duela ikusaraziz. Ez da posible hori gertatzea; baina gertatu gertatzen da, eta ezin da onartu.

Aldi berean, azkenaldian kritika zorrotzak ikusi ditugu, herraz beteak eta sarri xenofobia-kutsukoak, zeinetan esaten baitzen D ereduak segregazioa dakarrela eta ez diela abegi egiten hezkuntza premia bereziak dituzten edo etorkinak diren ikasleei. Argi dago ikasle etorkinen kopurua txikiagoa dela eredu honetan, eta argi dago asko direla hori horrela izatea eragiten duten faktoreak. Egoera hori onbideratzeko irrika irmoaz, eta frogatu nahian ez dela D ereduaren bazterkeria eta segregazioa egiten duena, Geroa Baik Hezkuntza Departamentuari eskatzen dio azter ditzan zer faktorek eragiten duten hain etorkin gutxik hautatzea D ereduaren, eta, errealitate hori aztertu eta diagnostikatu ondoren, egin beharreko ekintza guztiak egin ditzan errealitate hori onbideratzeko.

Horregatik, etorkinak euskarazko ereduera hurbilaz behar ditugun uste sendoarekin, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

– Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du informazio eta sentsibilizazio kanpaina bat egitera, etorkinak D nahiz A ereduaren sar daitezten.

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentua premiatzen du gaitu beharreko mekanismoak gaitu ditzan, D ereduaren dardarin –edo, kasua bada, A ereduaren– ikasle etorkinentzako lehen aukera: garraioa eta jantokia, laguntzak, orduak, giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak bermatu, ikasle horiek berme artatu ahal izateko (gainontzeko beste ereduaren bezala, baina eredu horien hizkuntz exigentzia desberdinari erreparatuta, gainera).

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 23an

Foru parlamentaria: María Roncesvalles Solana Arana

F saila:
GALDERAK

Galdera, iruzur fiskalaren aurkako borrokari buruzkoa.*MIKEL BUIL GARCÍA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Buil García jaunak aurkeztutako galdera, iruzur fiskalaren aurkako borrokari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari

Mikel Buil García jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako Ogasuneko kontseilariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Kontuen Ganberak Nafarroako 2018ko Kontu Orokorrei buruz egindako txostenaren arabera, iruzur fiskalaren aurkako borrokatik heldu diren diru-sarrerek 170,11 milioi egiten zuten.

Ikuskatutako kasuetatik zenbatetan hauteman du tributu-arloko administrazioak ogasun publikoaren aurkako delitu-zantzua eta eman dio horren berri epaitegiari edo ministerio fiskalari, Tributuei buruzko Foru Lege Orokorrean ezartzen denari jarraikiz?

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 20an

Foru parlamentaria: Mikel Buil García

Galdera, 2030eko Agenda garatzeko konpromisoa bultzatze eta sendotze aldera aurreikusitako jarduketei buruzkoa.

NURIA MEDINA SANTOS ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nuria Medina Santos andreak aurkeztutako galdera, 2030eko Agenda garatzeko konpromisoa bultzatze eta sendotze aldera aurreikusitako jarduketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Nuria Medina Santos andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer egiteko asmoa du 2030eko Agendaren garapenarekiko bere konpromisoa bultzatzeko eta sendotzeko?

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 21ean

Foru parlamentaria: Nuria Medina Santos

Galdera, Espainiako Gobernuak larrialdi klimatikoa deklaratu izanari buruzkoa.

MARÍA VIRGINIA MAGDALENO ALEGRÍA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Virginia Magdaleno Alegría andreak aurkeztutako galdera, Espainiako Gobernuak larrialdi klimatikoa deklaratu izanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Garapen Ekonomikorako kontseilari Manu Aierdiri, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2020ko urtarrilaren 21ean, Espainiako Gobernuak larrialdi klimatikoa deklaratu du; halatan, berotze globalari aurre egite aldera urgentziaz jardun behar dela aitortzen duenez, hogeita hamar neurri aurkeztu ditu, datozen ehun egunotan hartuko direnak.

Espainiako Gobernuak larrialdi klimatikoa deklaratu izanak zer neurritan eraginigen dio Nafarroari?

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 21ean

Foru parlamentaria: Virginia Magdaleno Alegría

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Virginia Magdaleno Alegría

Galdera, Nafarroako Foru Auzitegi Ekonomiko-Administratiboaren esparruan jakinarazpen elektronikoen zerbitzu-ematea arautzen duen Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren abenduaren 31ko 99/2019 Foru Aginduari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroako Foru Auzitegi Ekonomiko-Administratiboaren esparruan jakinarazpen elektronikoen zerbitzu-ematea arautzen duen Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren abenduaren 31ko 99/2019 Foru Aginduari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakien:

Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu da Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren abenduaren 31ko 99/2019 Foru Agindua, zeinaren bidez jakinarazpen elektronikoen zerbitzu-ematea

arautzen baita Nafarroako Foru Auzitegi Ekonomiko-Administratiboaren esparruan.

Agindu horren hitzaurrean adierazten den bezala, foru agindu horren helburu nagusia da Nafarroako Foru Auzitegi Ekonomiko-Administratiboaren eskumen-esparruaren barrenean jaulkitzen diren egintza eta jarduketan jakinarazpen elektronikoen zerbitzua garatzea, kontuan harturik bai gaur egun dituen eskumenak bai gero batean, onets litezkeen balizko arau aldaketan ondorioz, bere gain izan litzakeen ere.

Hori guztia ikusita, honako galdera hauek aurkezten dira, idatziz erantzun dakien:

Herritarrei zertan eraginen die Nafarroako Foru Auzitegi Ekonomiko-Administratiboaren esparruan jakinarazpen elektronikoen zerbitzua ezartzeak?

Administrazioarekin harremanetan jartzeko baliabide elektronikorik oraindik ez daukaten pertsonak mugatuta ikus al lezakete administrazio-organo horretarako irispidea izateko eskubidea?

Pertsona juridikoentzat –toki entitateak barne– derrigorrezkoa izanen al da Foru Auzitegi Ekonomiko-Administratiboarekin zerikusia duten administrazio-izapide guztiak modu elektronikoz jakinaraztea? Gobernuak ba al du asmorik foru agindu horren edukiari buruzko informazio-kanpainarik horren indarraldia hasi aurretik egiteko, herritarrek jakin dezaten horrek zer dakarren?

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 21ean

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, Nafarroako Gobernuko Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusiari buruzkoa.

JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroako Gobernuko Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarren Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Espainiako Gobernuari sostengua ematen dioten alderdien ekinbidearen oinarriak ikusita, egokitzat jotzen al da Nafarroako Gobernuko Migrazio Politiketako zuzendaritza nagusia duen pertsona ez izatea ez etorkina ez arrazializatua?

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 22an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

Galdera, polizia-gehiegikeriei buruz Nafarroak eta EAEk onetsitako legeen aurka PPK, Cs-ek eta Voxek aurkeztutako errekurtsioak Konstituzio Auzitegiak izapidetzeko onartu izanari buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Jabi Arakama Urriaga jaunak aurkezturiko galdera erretiratu izanaz. Galdera polizia-gehiegikeriei buruz Nafarroak eta EAEk onetsitako legeen aurka PPK, Cs-ek eta Voxek aurkeztutako erre-

kurtsioak Konstituzio Auzitegiak izapidetzeko onartu izanari buruzkoa zen, eta 2019ko irailaren 20ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. (10-19/POR-00136).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Arauk, Nafarroako Parlamentuak Memoria Historikoaren arloko Batzorde Teknikorako bere ordezkari gisa hautatu beharreko bi kideak aukeratzekoak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala emateko azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legearen 5. artikulua ezartzen du Memoria Historikoaren arloko Koordinazio Batzorde Tekniko bat eratu behar dela, agindu horretan esleitzen zaizkion eginkizunak izanen dituena. Aipatu foru legearen 5. artikuluko 2. apartatutan xedatzen bada ere Batzorde Teknikoaren osaera erregelamendu bidez zehaztuko dela, batzorde horrek Nafarroako Parlamentuaren ordezkari bat izan behar du nahitaez.

Batzorde Teknikoaren osaera zehazten duen martxoaren 26ko 34/2014 Foru Dekretuaren 1.3.b) artikulua xedatutakoaren arabera, "bi batzordekide Nafarroako Parlamentuaren ordezkariak izan behar dira, aipatu Legebiltzarrak libreki hautatuak".

Hori horrela, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 37.1.Bederatzigarrena artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrarekin adostu ondoren, hona ERABAKIA:

Lehena. Onestea Nafarroako Parlamentuak Memoria Historikoaren arloko Batzorde Teknikorako bere ordezkari gisa hautatu beharreko bi kideak aukeratzeko arauak. Hona arauen testua:

1. Herritarrekiko Harremanetako Batzordeak eginen du hautaketa, talde parlamentarioek eta foru parlamentarien elkarteak banaka nahiz batera proposaturiko hautagaien artetik.

Hautagitzak gehenez bi pertsonaz osaturik egonen dira, foru parlamentari izan beharrik ez dutenak. Aipatu hautagitzak talde parlamentarioek eta foru parlamentarien elkarteak aurkeztuko dituzte adierazitako Batzordeko Mahaiari zuzenduriko idazki baten bidez, eta aurkezpen-epea 2020ko otsailaren 6ko 17:30ean amaituko da.

2. Herritarrekiko Harremanetako Batzordeko Mahaiak hautagaitza proposatuak aldarrikatuko ditu.

3. Bi batzordekideak aldi berean hautatuko dira. Horretarako, Batzordeko kide den foru parlamentari bakoitzak –titularra nahiz ordezkaria– zilegi izanen du Legebiltzarraren zenbat ordezkari-postu bete behar diren, horrenbeste izen adieraztea txartelean, aldarrikaturiko hautagaitzen artetik.

4. Mahaiak boto-zenbaketa egin ondoren, boto gehien lortzen duten hautagaiak izanen dira Memoria Historikoaren arloko Batzorde Teknikoko kide hautaturik gertatuko direnak Nafarroako Parlamentuko ordezkari gisa.

5. Hautaketarako erabakigarria den berdinketa gertatuz gero, boto-kopuru bera lortu dutenen arteko bozketak errepikatuko dira, berdinketa hautsi arte.

6. Nafarroako Parlamentuko lehendakariari hautaketaren emaitza jakinarazita, horrek Herritarrekiko Harremanetako kontseilariari jakinaraziko dio aipatu Batzorde Teknikoko bi batzordekide parlamentarioen hautaketa.

Bigarrena. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Talde parlamentarioek 2020an jasoko dituzten dirulaguntzak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 27an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

2020ko urtarrilaren 15ean Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak txosten bat aurkeztu du, Nafarroako Parlamentuaren 2020ko ekitaldirako aurrekontu-proiektuan talde parlamentarioentzat onetsiriko dirulaguntzei buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 35. eta 37. artikuluek ezarritakoarekin bat, hona ERABAKIA:

1. Ezartzea, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez, talde parlamentarioentzako dirulaguntzek ez dutela inolako igoerarik izanen.

2. Onestea, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez, talde parlamentarioek jasoko dituzten ordainsariak. Haien zenbatekoak hauek dira:

a) Diru-laguntza finkoa: 8.091,00 euro/hilabete/talde parlamentario.

b) Diru-laguntza aldakorra: Kontzeptu hauen baturaren arabera zenbatekoa:

– Funtzionamendu-gastuak: 1.462,00 euro/hilabete/parlamentari.

– Antolaketa-gastuak: 1.117,00 euro/hilabete/parlamentari.

– Langile eta jarduera gastuak: 4.172,00 euro/hilabete/talde parlamentarioko bost parlamentari bakoitzeko edo zatikiko.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru parlamentarietara bilkuretara bertaratzearen truke 2020an jasoko dituzten ordainsariak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 27an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak emandako txostena, 2020ko urtarrilaren 15ekoa, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 15. eta 37. artikuluetan xedatutakoari jarraikiz, ERABAKI DA:

1. Ezartzea, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez, foru parlamentarietara bertaratzearen truke jasoko dituzten ordainsarietara behin-behineko igoera izanen dutela, ehuneko 2koa, 2019ko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko.

2. Onestea foru parlamentarietara bertaratzearen truke 2020an jasoko dituzten ordain-

sariak. Haien modalitateak eta zenbatekoak hauek dira:

– 146,30 euroko dieta, deituak diren ekitaldi parlamentarioetara bertaratzeagatik, helbidea Iruñean edo Iruñetik 25 kilometrora bitarteko herrietan daukaten foru parlamentarietara.

– 173,00 euroko dieta, deituak diren ekitaldi parlamentarioetara bertaratzeagatik, helbidea Iruñetik 25 kilometro baino gehiagora dauden herrietan daukaten foru parlamentarietara.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru parlamentarien bidaia ofizialengatiko eta Legebiltzarreko langileek lanaren kariaz egiten dituztenengatiko ordainsarien araubidea 2020ko urterako.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 27an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailtza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak, 2020ko urtarrilaren 15ean, proposatu du bidaia ofizialengatiko ordainsariak ehuneko 2 igotzea behin-behinekoz.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 15. eta 37. artikuluek ezarritakoarekin bat, hona ERABAKIA:

1. Onestea, 2020rako, foru parlamentarien bidaia ofizialengatiko eta Legebiltzarreko langileek lanaren kariaz egiten dituztenengatiko ordainsarien araubidea. Haien zenbatekoak hauek dira:

– Nafarroatik kanpora eginiko bidaia ofizialengatiko ordainsariak (mantenu-gastu arruntak): 51,00 €/egun.

– Atzerrira eginiko bidaia ofizialengatiko ordainsariak (mantenu-gastu arruntak): 81,60 €/egun.

– Lokomozio-gastuengatiko ordainsariak: 0,32 €/km.

2. Maiatzaren 24ko 174/1999 Foru Dekretuaren bidez onetsiriko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Erregelamenduaren 8. artikuluan xedatutakoarekin bat, honako hauek dira karga-salbuespena duten zenbatekoen mugak 2020rako:

– Mantenu-gastuengatik: 53,34 euro egun bakoitzeko, Espainiako lurraldearen barneko joan-etorriak direnean; eta 91,35 euro egun bakoitzean, atzerrira eginiko bidaiak direnean.

– Lokomozio-gastuengatik: 0,32 euro kilometroko, gehi justifikaturiko bidesari- eta aparkaleku-gastuak.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Nafarroako Parlamentuko lehendakariak 2020ko urtarrilaren 1etik aitzina jasoko dituen ordainsariak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 27an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailtza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak 2020ko urtarrilaren 15ean proposamen-txosten bat egin du Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren 2020. urterako ordainsariei buruz.

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduen 37. artikuluan eta Nafarroako Parlamentuko Lehendakariaren Estatutuan ezarritakoari jarraituz, ERABAKI DA:

1. Ezartzea, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez, Legebiltzarreko Mahaiak 2003ko abenduaren 30eko erabakiaren bitartez onetsitako irizpideen aplikazioa, Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren ordainsariak zehazte aldera.

2. Onestea, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez, ezen lehendakariaren urteko ordainsari gordina 73.380,44 eurokoa izanen dela.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru parlamentariak 2020ko urtarrilaren 1etik aitzina jasoko dituzten ordainsariak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 27an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak 2020ko urtarrilaren 15ean txosten bat egin du foru parlamentarien 2020. urterako ordainsariei buruz.

Foru parlamentarien ordainsariei buruzko arauetan eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 15., 17. eta 37. artikuluetan xedatutakoari jarraikiz, hona ERABAKIA:

1. Ezartzea, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez, foru parlamentarien ordainsariak ehuneko 2ko behin-behineko igoera izanen dutela 2019ko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko, sektore publikoaren zerbitzuko langileei buruzko estatu-legediak aurreikusten duenari jarraikiz.

2. Onestea ezen lanaldi osoko araubideari atxikitako Mahaiko eta Eledunen Batzarreko kide

diren foru parlamentarien urteko ordainsari gordina 60.337,14 eurokoa izanen dela 2020. urterako.

3. Onestea ezen lanaldi osoko araubideari atxikitako gainerako foru parlamentarien urteko ordainsari gordina 53.631,52 eurokoa izanen dela 2020. urterako.

4. Onestea ezen lanaldi osoko araubideari atxiki gabeko Mahaiko eta Eledunen Batzarreko kide diren foru parlamentarien urteko ordainsari gordina 45.252,62 eurokoa izanen dela 2020. urterako.

5. Onestea ezen lanaldi osoko araubideari atxiki gabeko gainerako foru parlamentarien urteko ordainsari gordina 40.223,68 eurokoa izanen dela 2020. urterako.

6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Nafarroako Parlamentuko behin-behineko langileek 2020ko urtarrilaren 1etik aitzina jasoko dituzten ordainsari gordinak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 27an eginiko bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak, 2020ko urtarrilaren 15ean, txosten bat egin du, Nafarroako Parlamentuko behin-behineko langileek 2020an jasoko dituzten ordainsariak behin-behinekoz ehuneko 2 igotzeari buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduaren 37. artikuluan eta Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuan ezarritakoari jarraikiz, ERABAKI DA:

1. Ezartzea, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, honako hauek izanen direla Nafarroako Parlamentuko behin-behineko langileen urteko ordainsari gordinak:

– Lehendakaritzako Kabineteko burua: 54.946,22 euro.

– Lehendakaritzako idazkaria: 41.332,62 euro.

– Mahaiko kideen idazkaria: 33.444,32 euro.

– Talde parlamentarioen laguntzaileak: 33.444,32 euro.

2. Talde parlamentarioen laguntzaileei eta Mahaiko kideen idazkariari aplikatzea 2012ko abenduaren 17ko Mahaiaren Erabakiaren bidez zerbitzu-aitorpenari buruz onetsitako irizpideak.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langile funtzionarioek eta kontratadunek beren mailaren arabera 2020ko urtarrilaren 1etik aitzina jasoko dituzten ordainsariak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak, 2020ko urtarrilaren 15ean, araudi indardunari jarraituz, txosten bat egin du, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langile funtzionarioen eta kontratadunen ordainsariei buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamendua-ren 37. artikuluan eta Legebiltzarreko Langileen Estatutuan ezarritakoari jarraikiz, ERABAKI DA:

1. Ezartzea ezen, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langile funtzionarioen eta kontratadunen ordainsariei ehuneko 2ko gehikuntza orokorra izanen dutela behin-behinekoz, hori baita Estatuko legediak sektore publikoaren zerbitzuko langileentzat aurreikusitako portzentajea.

2. Onestea maila bakoitzaren hasierako soldat 2020. urterako. Honako hauek dituzte urteko zenbatekoak:

Maila	Urteko zenbatekoa
A	27.435,24 euro
B	23.080,40 euro
C	19.146,12 euro
D	16.674,70 euro
E	14.667,24 euro.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

2019. urtean zehar foru parlamentariak jasotako ordainsariak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 15.4 artikulua ezartzen du Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu behar direla foru parlamentari guztiek aurreko urtean jasotako ordainsariak.

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuak foru parlamentariak 2019. urtean zehar

jasotako ordainsari guztien zerrenda zehaztua igorri dio Mahaiari.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 37. artikulua xedatutakoarekin bat, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Izen-abizenak	Ondainsari finkoa	Beratarztearen truke jasotako ordainsariak	Kilometro-ordaina	Bestelako ¹ prestazioak	Gauzako ordainsaria	Guztira
AGUIRRE OVIEDO, JORGE	18.256.97	-	-		134.30	18.391.27
ALEMÁN ARRASTIO, VIRGINIA	28.848.52	-	1.176.45	18.526.59	162.24	48.713.80
ALVAREZ ALONSO, MARTA	28.038.43	-	-		189.28	28.227.71
ALZORRIZ GOÑI, RAMÓN	30.668.01	-	-		189.28	30.857.29
ANAUT PEÑA, DABID	28.848.52	-	807.24		162.24	29.818.00
ANSA ASCUNCE, ANA ISABEL	3.213.22	-	-		27.04	3.240.26
ANSA ECHEGARAY, ÁNGEL	26.290.04	143.08	-		162.24	26.595.36
ARAIZ FLAMARIQUE, ADOLFO	55.576.03	-	2.018.10		324.48	57.918.61
ARAKAMA URTIAGA, JAVIER	28.038.43	-	-		189.28	28.227.71
ARANBURU BERGUA, ISABEL	52.515.96	-	-		324.48	52.840.44
ARANOA ASTIGARRAGA, MIREN JULIA	52.515.96	-	-		324.48	52.840.44
ARIZCUREN POLA, ÓSCAR	-	3.570.70	-	-	162.24	3.732.94
ASIAIN TORRES, MIKEL	28.038.43	-	-		189.28	28.227.71
AZCONA MOLINET, PABLO	28.038.43	-	1.575.42		189.28	29.803.13
AZNAL SAGASTI, LAURA	28.038.43	-	-		189.28	28.227.71
AZNÁREZ IGARZA, AINHOA	59.527.67	-	-		324.48	59.852.15
BARKOS BERRUZUE, UXUE	23.661.62	-	-		134.30	23.795.92
BELTRÁN VILLALBA, ANA	19.669.72	-	143.22		108.16	19.921.10
BIURRUN URPEGUI, M ^a ARANZAZU	28.038.43	-	-		189.28	28.227.71
BONILLA ZAFRA, ALBERTO	28.038.43	-	-		189.28	28.227.71
BUIL GARCÍA, MIKEL	55.874.74	-	-		324.48	56.199.22
BUJANDA CIRAUQUI, MIGUEL	21.028.75	-	558.00		189.28	21.776.03
CARRILLO SUAREZ, FANNY CECILIA	28.848.52	-	-	13.718.55	162.24	42.729.31
CASADO OLIVER, LUIS	28.848.52	-	2.156.36	18.526.59	162.24	49.693.71
CASTIELLA IMAZ, JOKIN	18.358.08	-	-		162.24	18.520.32
CATALÁN HIGUERAS, ALBERTO	19.177.98	-	2.376.77		108.16	21.662.91
CHIVITE NAVASCUÉS, MARÍA	35.419.99	-	-		216.32	35.636.31
CIRIZA PÉREZ, BERNARDO	7.152.45	-	150.04		81.12	7.383.61
COUSO CHAMARRO, CARLOS	32.455.03	-	-		162.24	32.617.27
DE SIMÓN CABALLERO, MARISA	55.802.95	-	-		324.48	56.127.43
DOMENECH LINDE, MÓNICA	28.848.52	-	-	18.526.59	162.24	47.537.35
ERASO SALAZAR, RAFAEL	28.848.52	-	2.891.68		162.24	31.902.44
ESPARZA ABAURREA, JOSE JAVIER	59.081.61	-	-		324.48	59.406.09
ESPARZA GARRIDO, JORGE	28.038.43	-	-		189.28	28.227.71
FANLO MATEO, PATRICIA	-	8.174.60	-	-	189.28	8.363.88
FDEZ. DE GARAYALDE Y LAZCANO SALA, ASUN	21.417.83	-	1.147.00		135.20	22.700.03
GANUZA BERNAOLA, BEGOÑA	28.848.52	-	782.13		162.24	29.792.89
GARBAYO BERDONCES, RAQUEL	28.038.43	-	1.832.10		189.28	30.059.81
GARCÍA ADANERO, CARLOS	17.483.95	-	-		108.16	17.592.11
GARCÍA JIMÉNEZ, JAVIER	52.515.96	-	6.045.93		324.48	58.886.37
GARCÍA MALO, M ^a ISABEL	55.576.03	-	-		324.48	55.900.51
GARMENDIA PÉREZ, GUZMÁN MIGUEL	28.848.52	-	-		162.24	29.010.76
GIMENO GURPEGUI, CARLOS	31.629.98	-	1.806.68		216.32	33.652.98
GONZÁLEZ FELIPE, PEDRO JOSÉ	28.038.43	-	1.806.68		189.28	30.034.39
GONZALEZ MARTINEZ, DOMINGO	28.038.43	-	2.550.68		189.28	30.778.39
HERRERO IBÁÑEZ, MARIANO	28.848.52	-	2.999.25		162.24	32.010.01
HUALDE IGLESIAS, UNAI	65.416.87	-	-		324.48	65.741.35
IBÁÑEZ PÉREZ, M ^a YOLANDA	31.544.01	-	3.143.40		189.28	34.876.69
IBARROLA GUILLÉN, M. ^a CRISTINA	28.038.43	-	-		189.28	28.227.71
IRIARTE LÓPEZ, IÑAKI	-	12.067.82	-	-	324.48	12.392.30
IRIZAR JAUREGUI, FRANCISCO M ^a	18.358.08	-	434.00		162.24	18.954.32
IZURDIAGA OSINAGA, ARANZAZU	28.848.52	-	-		162.24	29.010.76

Izen-abizenak	Ondainsari finkoa	Berlaratzearen truke jasotako ordainsariak	Kilometro-ordaina	Bestelako ¹ prestazioak	Gauzako ordainsaria	Guztira
JIMÉNEZ HERVÁS, TXENTXO	-	-	-	4.989.32	-	4.989.32
JURÍO MACAYA, INMACULADA	56.021.54	-	2.712.50		324.48	59.058.52
KORRES BENGOETXEA, ESTHER	28.848.52	-	-		162.24	29.010.76
LECUMBERRI URABAYEN, JAVIER	28.038.43	-	-		189.28	28.227.71
LEUZA GARCÍA, PATXI	28.847.96	-	-		162.24	29.010.20
LLORENTE TRUJILLO, M. ^a ELENA	-	7.862.14	-	-	189.28	8.051.42
MAGDALENO ALEGRÍA, VIRGINIA	18.256.97	-	-		134.30	18.391.27
MARTINEZ URIONABARRENETXEA, KOLDO	48.127.19	-	-		297.44	48.424.63
MEDINA SANTOS, NURIA	52.515.96	-	-		324.48	52.840.44
MENA BLASCO, CARLOS	28.038.43	-	-		189.28	28.227.71
NUIN MORENO, MIGUEL	32.455.03	-	-	20.165.97	162.24	52.783.24
OLAVE BALLARENA, M. ^a ISABEL	28.038.43	-	1.283.40		189.28	29.511.11
PERALES HURTADO, PATRICIA	28.038.43	-	-		189.28	28.227.71
PEREZ ARREGUI, FRANCISCO	21.028.75	-	449.50		189.28	21.667.53
PÉREZ RUANO, LAURA LUCÍA	28.848.52	-	-		162.24	29.010.76
PÉREZ-NIEVAS LÓPEZ DE GOICOECHEA, CARLOS	28.038.43	-	2.039.80		189.28	30.267.51
RAMÍREZ ERRO, MAIORGA	59.081.61	-	2.929.50		324.48	62.335.59
REGÚLEZ ÁLVAREZ, BLANCA ISABEL	18.256.97	-	970.92		134.30	19.362.19
RUIZ JASO, BAKARTXO	56.021.54	-	-		324.48	56.346.02
RUIZ LÓPEZ, M. ^a CONCEPCIÓN	17.046.84	-	2.226.11		108.16	19.381.11
SÁEZ BARRAO, M. ^a TERESA	28.848.52	-	-		162.24	29.010.76
SAN MARTÍN ANIZ, ANA ISABEL	28.848.52	-	-		162.24	29.010.76
SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA, JUAN LUIS	56.021.54	-	-		324.48	56.346.02
SATRÚSTEGUI MARTURET, CONSUELO	28.848.52	-	-	18.308.07	162.24	47.318.83
SAYAS LÓPEZ, SERGIO	17.046.84	-	-		108.16	17.155.00
SEGURA MORENO, M. ^a CARMEN	28.848.52	-	1.718.64		162.24	30.729.40
SOLANA ARANA, M. ^a RONCESVALLES	20.885.98	-	-		134.30	21.020.28
SUÁREZ BENITO, JOSÉ	28.038.43	-	2.039.80		189.28	30.267.51
UNZU GARATE, AINHOA	52.515.96	-	-		324.48	52.840.44
VALDEMOROS ERRO, M. ^a JESÚS	28.038.43	-	-		189.28	28.227.71
VELASCO FRAILE, RUBEN	28.848.52	-	-		162.24	29.010.76
ZARRALUQUI ORTIGOSA, LUIS	-	10.998.26	-	-	162.24	11.160.50
GUZTIRA	2.517.475,18	42.816.60	52.771.30	112.761.68	16.489.90	2.742.314.66

(1) Kargua uzten duten parlamentarien hartzeko ekonomikoa eta Gizarte Segurantzako kotizazio en itzulketa.

